

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
1. Ahozko komunikazio-egoeran solaskideak erabilitako baliabide paralinguistikoen balio adierazkorra interpretatu eta nork bere komunikazio- asmoa betetzeko egoki erabili.	<p>1.1 Ahozko komunikazio-egoerako partaideen komunikazio-asmoak adierazten ditu, erantzuna justifikatzeko gorputzaren jirako baliabide paralinguistikoak egoki erabiliz.</p> <p>1.2 Hainbat adierazpen emanik, horietako bakoitza gertatzeko testuinguru posiblea adierazten du.</p> <p>1.3 Emaniko adierazpenak ahotsaren erabilerari lotutako baliabide paralinguistiko egokiak erabiliz ahoskatzen ditu.</p> <p>1.4 Egoki grabatzen ditu adierazpenak.</p>
2. Proposatutako komunikazio- egoeren eskakizunei erantzuteko sortutako mezuetan enuntziatioaren testuinguruari lotutako ikaskuntzak aplikatu.	<p>2.1 Komunikazio-egoera baterako adierazpen desegokiak emanik, haien desegokitasuna justifikatzen du.</p> <p>2.2 Emaniko komunikazio-egoerarako adierazpen egokiak proposatzen ditu, ikasitako pertsona-, leku eta toki-deiktikoak egoki erabiliz.</p>
3. Proposatutako enuntziatuekiko jarraipen tematikoa bermatzen duten enuntziatuak sortu, hizkuntza-baliabide eta estrategia egokiak aplikatuz.	<p>3.1 Emaniko elkarrizketetan, identifikatzen ditu igorle-hartzaile jardunak lotzeko erabilitako hizkuntza-baliabideak eta estrategiak.</p> <p>3.2 Proposatutako elkarrizketetan, bere jarduna igorleak esandakoari lotzen dio, ikasitako hizkuntza-baliabideak eta estrategiak eta deiktikoak egoki erabiliz.</p> <p>3.3 Proposatutako elkarrizketetan, bere jarduna igorleak esandakoari lotzeko, askotariko hizkuntza-baliabide eta estrategiak erabiltzen ditu.</p>
4. Emandako euskarriak zein norbere esperientzia baliatuz, rol jokoak egokitutako ikuspuntua defendatzeko argudio-mota baliagarriak hautatu edota sortu, eta esaten duen horrekiko daukan jarrera islatzeko hizkuntza-baliabideak erabili.	<p>4.1 Emaniko argudioak eta falaziak ikuspuntuaren arabera multzokatzen ditu.</p> <p>4.2 Argudioak eta falaziak bereizi eta bakoitza zer motatakoa den egoki adierazten du.</p> <p>4.3 Emaniko adierazpenak modalizatzen ditu, esandakoarekiko jarrera edo balorazioa adierazteko hizkuntza-baliabide askotarikoak txertatuz.</p>
5. Aditzaren komuntadura zainduz, perpaus zuzenak idatzi.	<p>5.1 Aditza oker jotatuta duten esaldiak identifikatzen ditu.</p> <p>5.2 Esaldiak zuzen berridazten ditu, eskatutako pertsonetan jotatuz, sistema errespetatuz (nor-nork, edota nor-nori-nork sailetakoak diren, alegia).</p> <p>5.3 Esaldiak zuzen berridazten ditu ezezkoan, horretarako beharrezko aldaketak eginez.</p>
6. Zuzentasun gramatikala eta ortografikoa aplikatu ahozko nahiz idatzizko ekoizpenean.	<p>6.1 Ahoz nahiz idatziz ekoizten dituen testuak gramatikalki zuzenak dira.</p> <p>6.2 Idatzizko testuetan ortografiari erreparatzen dio eta zuzenketak bideratzen ditu.</p>